# I ARABAKO FORU ALDUNDIA I
# DIPUTACION FORAL DE ALAVA

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Zerga Premiatasuneko Araugintza Dekretuak*

**6.815**

**2/2000 ZERGA PREMIATASUNEKO ARAUGINTZA DEKRETUA, urriaren 31ko Diputatuen Kontseiluarena, zeinaren bidez urriaren 6ko 10/2000 Errege Lege Dekretua egokitzen baita; azken hori nekazaritza, arrantza eta garraio arloei laguntzeko premiazko neurriei buruzkoa da.**

Urriaren 6ko 10/2000 Errege Lege Dekretuaren bidez, nekazaritza, arrantza eta garraio arloei laguntzeko hainbat premiazko neurri onartu dira. Neurri horietako batzuk zergekin lotuta daude eta nekazaritza, arrantza eta garraiorako erabiltzen den gasolioaren prezioaren igoerak eragin ditu.

Zergen arloko neurriak aztertuta, eta Ekonomia Ituna kontuan hartuta, 27. artikulua batez ere, komenigarritzat jo da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko araudian aldaketa bat egitea.

Zerga horri dagokionez, aldatu egingo da nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezia ezarri behar zaien ustiategien enpresaburu titularrek jasotzeko eskubidea duten konpentsazioa. Hori dela bide, konpentsazioa oraingo %5etik %8 izatera igaroko da nekazaritza edo baso ustiategietan lortutako produktu naturalen entregen kasuan eta ustiategi horietako zerbitzu osagarrien kasuan, eta %7ra abeltzaintza eta arrantza ustiategietan lortutako produktu naturalen entregen kasuan eta ustiategi horietako zerbitzu osagarrien kasuan.

Araudiaren Zerbitzuak horretaz egin duen txostena ikusi da.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak hala proposatuta, Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran aztertu ondoren, Arabako Zergei buruzko 1981eko maiatzaren 31ko Foru Arau Orokorraren 13. artikuluak eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak Foru Aldundiari ematen dizkion eskumenez baliatuz, premia arrazoiak direla medio, hau

XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra.- Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintza Foru Dekretua aldatzea.**

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintza Foru Dekretuaren 130. artikuluko bosgarren paragrafoa aldatu eta honela idatzita geratuko da:

“Bost. Artikulu honetako hirugarren paragrafoan aipatu den goren mugako konpentsazioaren kopurua kalkulatzeko paragrafo horretan adierazitako produktuen edo zerbitzuen salmenta-prezioari ondoren zehazten diren ehunekoetatik dagokiona ezarriko zaio:

1.- %8 nekazaritza edo baso ustiategietan lortutako produktu naturalen entregen kasuan eta ustiategi horietako zerbitzu osagarrien kasuan.

2.- %7 abeltzaintza eta arrantza ustiategietan lortutako produktu naturalen entregen kasuan eta ustiategi horietako zerbitzu osagarrien kasuan.

Prezio horiek zehazteko ez dira zenbatuko ez eragiketa horiei ezartzen zaizkien zeharkako zergak, ez erosleari bereiz ezartzen zaizkion gastu osagarriak, hala nola komisioak, eramatea, garraioak, aseguruak, finantza-gastuak, etab.

Diruzko kontraprestaziorik gabe egindako eragiketetan, ehuneko horiek entregatutako produktuek edo emandako zerbitzuek merkatuan duten prezioari aplikatuko zaizkio.

Eragiketa bakoitzean ezarri beharreko ehunekoa konpentsazioa jasotzeko eskubidea sortzen den unean indarrean dagoena izango da.”

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Decretos Normativos de Urgencia Fiscal*

**6.815**

**DECRETO NORMATIVO DE URGENCIA FISCAL 2/2000, del Consejo de Diputados de 31 de octubre, de adaptación del Real Decreto Ley 10/2000, de 6 de octubre, sobre medidas urgentes de apoyo a los sectores agrario, pesquero y del transporte.**

Mediante el Real Decreto-Ley 10/2000, de 6 de octubre, se han aprobado una serie de medidas urgentes de apoyo a los sectores agrario, pesquero y del transporte. Estas medidas, algunas de las cuales tienen naturaleza fiscal, vienen motivadas por el aumento de precio del gasóleo de uso agrícola, pesquero y del transporte.

Analizadas las medidas de índole tributaria, y a la vista del Concierto Económico, especialmente su artículo 27, se ha considerado conveniente introducir una modificación en la normativa reguladora del Impuesto sobre el Valor Añadido.

En relación con este Impuesto se modifica la compensación a que tienen derecho los empresarios titulares de explotaciones a los que es de aplicación el régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca. Esta alteración supone pasar del actual 5% al 8% (para el caso de entregas de productos naturales obtenidos en explotaciones agrícolas o forestales y en los servicios de carácter accesorio de dichas explotaciones) o al 7% (para el supuesto de entregas de productos naturales obtenidos en explotaciones ganaderas o pesqueras y en los servicios accesorios de las referidas explotaciones).

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa.

A propuesta del Diputado titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada el día de hoy, en uso de las atribuciones que concede a la Diputación Foral el artículo 13 de la Norma Foral General Tributaria de Álava, de 31 de mayo de 1981, y la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, -de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava-, por razones de urgencia,

DISPONGO:

**Artículo único.- Modificación del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido**

Se modifica el apartado Cinco del artículo 130 del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido, que quedará redactado en los siguientes términos:

“Cinco. La compensación a tanto alzado a que se refiere el apartado Tres de este artículo será la cantidad resultante de aplicar, al precio de venta de los productos o de los servicios indicados en dicho apartado, el porcentaje que proceda de entre los que se indican a continuación:

1º. El 8%, en las entregas de productos naturales obtenidos en explotaciones agrícolas o forestales y en los servicios de carácter accesorio de dichas explotaciones.

2º. El 7%, en las entregas de productos naturales obtenidos en explotaciones ganaderas o pesqueras y en los servicios de carácter accesorio de dichas explotaciones.

Para la determinación de los referidos precios, no se computarán los tributos indirectos que graven las citadas operaciones, ni los gastos accesorios o complementarios a las mismas cargados separadamente al adquirente, tales como comisiones, embalajes, portes, transportes, seguros, financieros u otros.

En las operaciones realizadas sin contraprestación dineraria, los referidos porcentajes se aplicarán sobre el valor de mercado de los productos entregados o de los servicios prestados.

El porcentaje aplicable en cada operación será el vigente en el momento en que nazca el derecho a percibir la compensación.”

**AZKEN XEDAPENAK**

**Lehena.- Indarrean sartzea**

Zerga Premiatasuneko Araugintza Dekretu honek Araba Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzen den egunean hartuko du indarra eta 2000ko urriaren 7tik aurrera izango ditu ondorioak.

**Bigarrena.- Garatzeko ahalmena**

Arabako Foru Aldundiak baimena du Zerga Premiatasuneko Araugintza Dekretu hau garatu eta ezartzeko behar diren xedapenak emateko.

**Hirugarrena.- Arabako Biltzar Nagusietara bidaltzea**

Zerga Premiatasuneko Araugintza Dekretu hau Arabako Biltzar Nagusien iritzipean jarriko da haiek berrets edo ezezta dezaten, indarreko legerian ezarritakoarekin bat.

Vitoria/Gasteiz, 2000ko urriaren 31.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

**DISPOSICIONES FINALES**

**Primera.- Entrada en vigor**

El presente Decreto Normativo de Urgencia Fiscal entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y empezará a surtir efectos desde el 7 de octubre de 2000.

**Segunda.- Facultad de desarrollo**

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal.

**Tercera.- Remisión a las Juntas Generales de Álava**

Este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se someterá a las Juntas Generales de Álava, para su convalidación o revocación, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

Vitoria-Gasteiz, 31 de octubre de 2000.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

**6.782**

**728/2000 ERABAKIA, urriaren 17ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, 27.000.000 pezeta (162.273,27 euro) gehitzen zaio Arabako Lurraldeko Kirol Federazioen jarduerak laguntzeko helburu duen zuzkidurari.**

Kontseiluaren otsailaren 8ko 68/00 Erabakiaren bidez, 30.000.000 pezeta/180.303,63 euro esleitu zen Arabako Lurraldeko Kirol Federazioen jarduerak laguntzeko, Arabako Foru Aldundiak 2000rako luzatu duen 1999ko aurrekontuko 90.1.01.82.06.4.6.1.00.03 kontusailaren kargura.

2000ko aurrekontua indarrean sartu ondoren, aurreko paragrafoan aipatuta den aurrekontu-zuzkidura 90.1.01.97.01.4.6.1.00.03 izango da , eta luzatututako aurrekontuan zuen zenbatekoaren ordez (30.000.000 pezeta /180.303,63 euro), 2000ko aurrekontuan 69.000.000 pezeta / 414.698,35 euro esleitu zaio.

Deialdi horri dagokionez 2000. urtean egindako gastua 57.000.000 pezeta / 342.576,90 eurokoa izango da.

Ondorioz, eman dizkidaten ahalmenez baliatuz eta Gazteria eta Kirol Saileko foru diputatuak hala proposatuta, hau

XEDATU DUT:

Aipatutako laguntzak emateko 2000ko ekitaldirako esleitu zen kopurua handitzeko baimena ematea; beraz, hogeita zazpi milioi (27.000.000) pezeta / ehun eta hirurogeita bi mila berrehun eta hirurogeita hamahiru euro eta hogeita zazpi zentimo (162.273,27) gehituko zaio deialdiko kopuruari, Arabako Foru Aldundiaren 2000ko aurrekontuko 90.1.01.97.01.4.6.1.00.03 kontusailaren kargura, hau da, luzatutako aurrekontuan ezarri zen 30.000.000 pezeta / 180.303,63 euroko mugaren ordez 57.000.000 pezeta / 342.576,90 euroko muga izango du 2000ko aurrekontuan.

Vitoria/Gasteiz, 2000ko urriaren 17a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Gazteria eta Kirol Saileko foru diputatua, PABLO ALEJANDRO MOSQUERA MATA.

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

**6.782**

**ACUERDO 728/2000, del Consejo de Diputados de 17 de octubre, que aumenta en 27.000.000 pesetas (162.273,27 euros) la consignación que se destinó a ayudas para las actividades de las Federaciones Deportivas Territoriales Alavesas.**

Por Acuerdo del Consejo número 68/00 de 8 de febrero, se destinó la cantidad de 30.000.000 pesetas/180.303,63 euros, para ayudas a las actividades de las Federaciones Deportivas Territoriales Alavesas, con cargo a la consignación presupuestaria 90.1.01.82.06.4.6.1.00.03 del presupuesto de 1999 de Diputación Foral de Álava prorrogado para el año 2000.

A partir de la entrada en vigor del presupuesto 2000, la consignación presupuestaria expresada en el párrafo anterior, pasa a ser la 90.1.01.97.01.4.6.1.00.03, y su importe pasa de 30.000.000 pesetas /180.303,63 euros del presupuesto prorrogado, a 69.000.000 pesetas / 414.698,35 euros en el presupuesto 2000.

Considerando que el gasto incluido en esta convocatoria, durante el año 2000, ascenderá a la cantidad de 57.000.000 pesetas / 342.576,90 euros.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen y a propuesta del Diputado Foral titular del Departamento de Juventud y Deporte,

DISPONGO:

Autorizar el aumento de la convocatoria, asignado en el ejercicio 2000, para la concesión de las ayudas citadas en ventisiete millones (27.000.000) pesetas / ciento sesenta y dos mil doscientos setenta y tres con ventisiete céntimos (162.273,27) euros, de la consignación presupuestaria 90.1.01.97.01.4.6.1.00.03 del presupuesto 2000 de Diputación Foral de Álava, pasando dicho límite de 30.000.000 pesetas / 180.303,63 euros del presupuesto prorrogado, a 57.000.000 pesetas / 342.576,90 euros en el presupuesto 2000.

Vitoria-Gasteiz, a 17 de octubre de 2000.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Juventud y Deporte, PABLO ALEJANDRO MOSQUERA MATA.

*Foru Arauak*

**GAZTERIA ETA KIROL SAILA**

**6.899**

**334/00 FORU AGINDUA, azaroaren 7koa, Gazteria eta Kirol diputatuarena, zeinaren bidez Kirolari aplikatutako Arteen Juan José Urraca 1. lehiaketaren oinarriak onartzen baitira.**

Kirolaren alderdi guztiak sustatzearren gauzatzen ari den jardueren barruan, Arabako Foru Aldundiko Gazteria eta Kirol Sailak egoki iritzi dio “Kirolari aplikatutako Arteen Juan José Urraca 1. urteroko lehiaketa” antolatzeari, arabar ohoragarri haren omenez eta arte-

*Ordenes Forales*

**DEPARTAMENTO DE JUVENTUD Y DEPORTE**

**6.899**

**ORDEN FORAL 334/00 de 7 de noviembre, del Diputado de Juventud y Deporte, por la que se aprueban las Bases del I Certamen Juan José Urraca de Artes aplicadas al Deporte.**

El Departamento de Juventud y Deporte de la Diputación Foral de Álava, dentro del conjunto de actividades que viene desarrollando, tendentes a estimular la promoción del deporte, en todos sus aspectos, ha estimado oportuno convocar la “1ª Anual Juan José